



DEIALDIA, IRUÑEKO UDALAREN HAUR ESKOLEN ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZERBITZURA ARITZEKO ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO ETA FINKATZEKO EZOHIKO PROZESUARI DAGOZKION HEZITZAILEEN 24 LANPOSTU HUTS OPOSIZIO-LEHIAKETAREN BIDEZ BETETZEKO, ENPLEGU PUBLIKOAN BEHIN-BEHINEKOTASUNA MURRIZTEKO NEURRIAK EZARTZEN DITUEN 20/2021 LEGEAN XEDATUTAKOAREN ARABERA.

**OPOSIZIO-LEHIAKETA
HEZITZAILEAK**

**OPOSIZIO FASEA – PROBA BAKARRA
BALORAZIOA: 60 PUNTU
DENBORA: 90 MINUTU**

2024/02/03

**EZ JO HURRENGO ORRIRA
HASTEN AHAL ZARELA ESAN ARTE**



- 1. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 27. artikulua araberaz, hezkuntzaren helburua da:**
 - a) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere bizikidetasunaren printzipio demokratikoak, eta oinarritzko eskubideak eta askatasunak errespetatuz.
 - b) Giza nortasuna oso-osorik garatzea, betiere hezkuntza-kolektibo bakoitzak ezarritako printzipio demokratikoak errespetatuz.
 - c) Giza nortasuna garatzea, Eskola Kontseilu Nazionalak ezarritako hezkuntza-ildoekin bat.

- 2. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren arabera, zein da Nafarroako hizkuntza ofiziala?**
 - a) Euskara.
 - b) Gaztelania.
 - c) Biak.

- 3. Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoan ezarritakoaren arabera, Nafarroako Parlamentua:**
 - a) Parlamentua bozketa unibertsal, libre, berdin, zuzen eta isilpekoaren bidez hautatuko da, bost urtetarako.
 - b) Parlamentuko kideen kopurua ez da berrogeitik beherakoa izan, ezta hirurogeita hamarretik gorakoa ere.
 - c) Parlamentuaren jarduna osoko bilkuretan eta batzordeetan gauzatuko da, eta bere kideen artean lehendakari bat, Mahai bat eta Batzorde Iraunkor bat hautatuko ditu.

- 4. Nafarroako Administrazio Publikoaren zerbitzuko Langileen Estatutuaren Testu Bategina onesten duen abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru Dekretuaren 27. artikulua onartzen duen, adierazi baieztape hauetako zein ez den zuzena:**
 - a) Eszedentzia berezian dagoen funtzionarioak ez du betetzen ari zen lanpostua gordetzeko eskubiderik izan, baina eskubide ekonomikoak sortuko ditu.
 - b) Emandako eszedentzia bereziaren aldia bukatu ez bada ere, interesatuek edozein unetan eska dezakete jarduneko zerbitzura itzultzea.
 - c) Antzinatearen ondorioetarako, kontutan hartuko zaie egoera horretan dauden denbora osoa.

- 5. Maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abuztuaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren artikulua bakarrez bigarren apartatuko 2 bis artikulua araberaz, hau da Espainiako hezkuntza-sistema:**
 - a) Lege honetan bertan araututako ikasketa bakoitzaren helburuen, konpetentzien, edukien, metodo pedagogikoen eta ebaluazio-irizpideen multzoa.
 - b) Hezkuntza-administrazioen, hezkuntzako profesionalen eta beren gaitasunak kalitatezko eta ekitatezko esparru batean ahalik eta gehien garatzen dituzten bestelako eragile publiko zein pribatu multzoa.
 - c) Hezkuntza-administrazioen, hezkuntzako profesionalen eta Espainian hezkuntza-eskubidea gauzatzeko zerbitzuak arautu, finantzatu eta emateko eginkizunak dituzten bestelako eragile publiko zein pribatu eta eskubide horren titularren multzoa, baita eskubide hori egikaritzeko garatzen diren harremanen, egituren, neurrien eta ekintzen multzoa ere.



6. Abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren artikulua bakarraren zazpigarren apartatuaren arabera, zeinak maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoaren 12. artikulua aldatzen baitu (adierazi zein den okerra):

- a) Haur Hezkuntza derrigorrezkoa da, eta ikasleen garapen fisikoari, afektiboari, sozialari, kognitiboari eta artistikoari laguntzea du helburu, bai eta elkarbizitzarako balio zibikoetan oinarritutako hezkuntza eskaintzea ere.
- b) Eskola-egutegiaren barruan, zerotik sei urtera bitarteko haurrak modu erregularrean hartzen dituzten ikastetxeak haur-hezkuntzako ikastetxe gisa baimendu beharko dituzte hezkuntza-administrazioek.
- c) Etapa horretan gurasoek edo legezko tutoreek duten funtsezko erantzukizuna errespetatzeko, haiekin lankidetzan jardungo dute hertsiki haur-hezkuntzako ikastetxeek.

7. Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumazartzen duen ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren 3. artikulua arabera, ondorengo baieztapenetatik, zein dagokio metodo pedagogikoen definizioari?

- a) Arlo bateko berezko edukiak osatzen dituzten ezagutzak, abileziak eta jarrerak, konpetentzia espezifikak eskuratzeko ikasi beharrekoak.
- b) Irakasleek, kontzienteki eta gogoeta baten ondorioz, antolatu eta planifikatzen dituzten estrategiak, prozedurak, teknikak eta ekintzak; elkarren artean koordinatuta, helburu dute ikasleen ikaskuntza bideratzea helburuak eta funtsezko konpetentziak nahiz konpetentzia espezifikak lortzea.
- c) Ikasleek funtsezko konpetentziekin eta konpetentzia espezifikoekin lotutako jarduerak gauzatzea dakarten egoerak eta jarduerak, konpetentzia horiek eskuratu eta garatzen laguntzen dutenak.

8. Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzaren etapako irakaskuntzen curriculumazartzen duen ekainaren 1eko 61/2022 Foru Dekretuaren 8. artikulua arabera, hurrek honako gaitasun hauek gara ditzaten lagunduko du Haur Hezkuntzak (adierazi zein den okerra):

- a) Beren familia, natura eta gizarte ingurunea behatu eta esploratzea, Nafarroako berezko ezaugarri batzuk bereiztea eta izaki bizidunekiko eta ingurumenarekiko begirune eta zaintza jarrerak garatzea.
- b) Beren gaitasun emozionalak eta afektiboak garatzea, eta helduekin nahiz beste haurrekin lotura seguruak ezartzea.
- c) Komunikazio trebetasunak garatzea zenbait hizkuntza eta adierazpidetan.

9. Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren 16. artikuluan ezarritakoaren arabera, ikastetxeek, besteak beste, eremu hauek izan beharko dituzte (adierazi zein den okerra):

- a) Unitate bakoitzeko gela bat, 60 metro karratukoa gutxienez. Unitate batentzako baino gehiagorentzako gelek 1,75 metro karratu izan behar dute gutxienez haur bakoitzeko. Urte 1etik gorako haurrentzako gelek atsedenerako eremu bereziak izan behar dituzte.
- b) Urte 1etik beherako haurrentzako logela bat.
- c) Erabilera anitzeko gela bat, gutxienez ere 30 metro karratukoa, edo 30 metro karratu bizpahiru eremutan banatuak. Baldintza hori ez da bete beharko 3 unitatetik beherako ikastetxeetan edo 3 unitate izan arren jantoki zerbitzurik ez dutenetan.



10. Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duen eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituen martxoaren 26ko 28/2007 Foru Dekretuaren 18. artikuluan ezarritakoaren arabera, unitate bakoitzeko gehieneko haur kopurua hau izanen da (adierazi zein den zuzena):

- a) Urte 1etik beherako haurrentzako unitateak: 8.
- b) Urte 1etik 2 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 14.
- c) 2 urtetik 3 urtera bitarteko haurrentzako unitateak: 18.

11. Hiru erantzun hauetatik, zein da zuzena?

- a) Erakunde Autonomoko gobernu-organoak honako hauek izanen dira: gerentea, Herritarren Aferen Batzordeko kide diren zinegotziak, lehendakaria eta lehendakariordea.
- b) Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren estatutuen 3. artikulua arabera, Erakunde Autonomoak zeregin honetara bideratuko du bere jarduna, betiere ahal duen neurrian: Haur Eskolen beharrak ezagutzera, beti, dagokien plangintzarako oinarri izanen diren azterketa egokien bidez.
- c) Erakunde Autonomoa erabat independentea da.

12. Zer esan nahi du holismoak, 2017an egindako Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren Ildo Pedagogikoaren printzipio komunetan idazketan oinarrituta?

- a) Esan nahi du haurrek eskolan bizi duten une orok baduela batasun banaezina eta, hortaz, berez hezigarriak direla. Ez dago hierarkiarik. Garrantzi berekoak dira lantegietako proposamenak eta jolas-guneetako uneak zein erritu-uneak.
- b) Esan nahi du ziurgabetasuna optimismoz onartzea, haurrek ezagutzeko prozesuan dituzten jokamolde edo estilo heterogeneoak aurretik ez zedarritzeko, ez etiketatzeko.
- c) Esan nahi du eskubidea dutela modu konplexuan sortutako esperientziak eta proposamenak bizitzeko eta, hortaz, modu askean egon daitezkeela harremanetan.

13. Ondorengo baieztapenetatik, zeinek dauka koherentziarik handiena Iruñeko Udaleko Haur Eskolen Erakunde Autonomoaren ildo pedagogikoarekin?

- a) Haur-eskolara egokitzeko aldia haurrak haur-eskolara ohitu bitarteko zaintza-aldi bat da.
- b) Harrera-aldia deitzen diogu haurrek eta beren familiekin haur-eskolarekin eta eskolak eskainitako aukerekin duten lehenengo hartu-emanari, une berezi horiei, alegia.
- c) Hurrei eskainitako jarduerak ondo planifikatuta eta programatuta egon behar dute, ahalik eta kalitate handiena eskaintzeko.

14. Heike Freireren bi argitalpen dira:

- a) "Educar en verde: Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza" eta "Patios vivos para renaturalizar la escuela".
- b) "Pedagogía verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza" eta "Patios vivos para renaturalizar la escuela".
- c) "Pedagogía verde. Ideas para acercar a niños y niñas a la naturaleza" eta "Patios exteriores libres para renaturalizar la escuela".



15. Zein hezkuntza-planteamenduri erantzuten dio testu honek?

“Asteko egun bakoitzak bere jarduera izaten du, eskuzkoa nahiz artistikoa; adibidez, ogia egitea. Haurtzaindegi gehienek erle-argizarizko eta euritmiazko akuarela eta marrazkia eskaintzen dute, eta eskulanak, berriz, irakasleen trebetasun eta aukeren arabera aldatzen dira. Jarduera guztietan, haurrek ereduari jarraituz eta bakoitzak bere erritmoan esperimendatuz ikasten dute”.

- a) Pikler-Lóczy pedagogia.
- b) Waldorf pedagogia.
- c) Montessori pedagogia.

16. Haur-eskolako jarrerai dagokienez, Reggio Emiliako ikuspegitik, zein baieztapen ez da zuzena?

- a) Helduaren zeregina ez dugu transmisore gisa definitu behar, harremanen sortzaile gisa baizik.
- b) Garrantzitsua da hezitzaileak bere lanbidea abentura baten gisan hartzea hezkuntza-jarduerak hutsalak gerta ez daitezen.
- c) Helduak, kultur geruza trinko horren barruan, bere aukera neutralez jabetu behar du.

17. Zein da aukera zuzena harrera-aldiari dagokionez?

- a) Lotura egitea gehiago dago hezitzailearen inizatibaren eta haurrei urrats hori berez egiteko eskura jartzen zaizkien aukeren menpe, haurren inizatibaren menpe baino.
- b) Hezitzaileek ederki dakite haurrarekin lotura ezartzeko gakoak direla hurbiltasun-urruntasun jolasa eta atxikimenduzko pertsona horiekin ezartzen den komunikazioa.
- c) Haurra kontsolatzeko edo negarra lehenbailehen amaitzeko ezinbestekoa da arreta negarretik aldentzea.

18. Hezkuntza-praktika on bat garatzeko, jarrera hauetako zein ez da egokia hezitzaileengan?

- a) Ikasleekin errespetuzko eta konfiantzazko jarrera tolerantzia, maitekorra eta diskriminatzailea izatea eta hura helaraztea.
- b) Erreferentzia-puntu afektibo-emozionala izatea.
- c) Beharrezkoa denean, muga egituratzaileak jartzea, epaitu gabe eta errurik egotzi gabe.

19. Reggio Emiliako planteamenduan, bikote hezitzaileak berekin dakar:

- a) Bi hezitzaileetako bakoitza taldeko haurren erdiaren erreferentzia izatea, lotura errazteko, eta jarraipen eta egokitzapen egokiagoa egin ahal izateko bakoitzaren erritmoa eta modua kontuan hartuta.
- b) Elkarrekin lan eginez, haurrei elkarrekintza-ereduak eta elkar ezagutzeko hainbat modu eskaintzen dizkieten bi pertsona izatea, haurrek pertsona bat edo beste aukera dezaketelarik, harreman- edo jolas-motaren arabera.
- c) Taldean lan egiten duten bi pertsonetako bat asistentzia-zereginenez arduratzea, eta bestea, berriz, hezkuntza arloaz.



20. Ideia hauetatik, zeinek definitzen du ondoen David Ausubelen ikaskuntza esanguratsua?

- a) “Benetako ezagutza eduki edo informazio berriek lehendik dituzten ezagutzen argitan esanahi bat hartzen dutenean bakarrik sor daiteke”.
- b) “Ikaskuntza-eskema egitura mental bat da, eta une jakin batean kategorien artean dagoen antolaketa kognitibo motarekin du zerikusia”.
- c) “Haurrek hazi diren komunitateko kideen jarduerak, ohiturak, hiztegia eta ideiak bere eginez ikasten dute”.

21. Alfredo Hoyuelosen arabera, haur-eskolako dokumentazioari dagokionez, zein da aukera zuzena?

- a) Gertatzen dena agerian uzteko aukera ematen du.
- b) Ikusitakoari buruzko deskribapenak egiten dira, plangintzan planteatutako hipotesiak berresten dituztenak.
- c) Esperientzia amaitutakoan egiten da dokumentazioa.

22. Vea Vecchik, dokumentazioari buruz sakontzen, hau aipatzen du:

- a) Idatzizko oharrak eraginkorrakoak dira ikono txikiak dituzten jarraibide eszenikoen antzekoak badira.
- b) Idatzizko oharrak saihestu daitezke argazki bidez dokumentatzeko aukera badago.
- c) Aurreko bi erantzunak zuzenak dira.

23. Zein da erantzun okerra? Behaketari dagokionez, Loris Malaguzziren arabera:

- a) Behaketaren bigarren mailako helburua hezkuntza-praktika bera eraldatzea da.
- b) Datuak sistematikoki biltzen saiatzen diren zalantza, galdekizun, ziurgabetasun eta galderetatik abiatzen da behaketa.
- c) Behatzailearen prestakuntzak, haren kulturak, haren asmoek eta haurraz duen irudiak eragina dute behaketan.

24. Haur Hezkuntzako lehenengo zikloko ikastetxeetako Hezkuntza Proiektuaren eta Proposamen Pedagogikoaren arabera, honako gai hauetatik, zein ez da sartzen ikasgela barruko hezkuntzako esku-hartzearen ebaluazioan eta doiketan?

- a) Proposamen pedagogikoa.
- b) Ikasgelako giroa.
- c) Hurrekiko eta beren familiekiko jarrerak.

25. Judit Falk doktorearen autonomiaren kontzepzioaren arabera, haurrak bere zainketan laguntzeari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Haurrak zainketetan laguntzea eskatzen eta sustatzen da, baina inoiz ere exijitu eta derrigortu gabe.
- b) Pixkanaka-pixkanaka zainketan laguntzeko exijitzen zaio.
- c) Haurrak urtebete duenetik aurrera janzteko orduan laguntzea sustatzen da.



26. Zein egilek uste du zainketa pertsonalen uneak direla garrantzitsuenak helduaren eta haurraren arteko interakzioan?

- a) Donald Winnicottek.
- b) Emmi Piklerrek.
- c) Maria Montessorik.

27. Piklerren planteamenduaren arabera, zainketei dagokienez, zein da erantzun okerra?

- a) Jolas aske independentean, haurra bera da bere helburuaren atzetik doana.
- b) Zainketetan, helduak gidatzen du egoera, lortu nahi duen helburuaren arabera, eta haurraren berezko jardura eta keinuak errespetatzen eta erabiltzen dituen arren, helburu hori lortzera bultzatzen du.
- c) Bi egoeretan, zainketetan eta jolas librean, haurra bera da bere helburuaren atzetik doana.

28. Elinor Goldschmieden arabera, jolas heuristikoan:

- a) Hezitzaileak haurrek egin behar dutena iradokitzen, estimulatzen du eta lorpenak goraipatzen ditu.
- b) Haur bat gauzak botatzen eta besteak gogaitzen hasten bada, hezitzaileak ez du esku hartu behar.
- c) Hezitzailea eserita dago, adi eta begira.

29. Javier Abad eta Ángeles Ruiz de Velascoren arabera, zergatik da garrantzitsua objektuak hautatu, kokatu eta haien artean konbinatzea jolas-instalazioen proposamenean?

- a) Objektu horiek mezu kultural bat daramatelako, ideien katalizatzaile direlako eta haurren eta kanpoko errealitatearen arteko harremanen bitartekari direlako, objektuak, berdinen taldea eta heldua hor kokatzen direlako.
- b) Jolasa garatzeko interesgarria delako tokia objektu askorekin eta askotarikoekin betetzea, haurrei zer objektuekin jolastu nahi duten aukeratzeko gaitasuna trebatzea ahalbidetuko dien espazio bat sortzeko xedez.
- c) Proposamen mota honetan kontu handiz hautatu behar ditugulako esplorazioa, bizipena eta errealitatea aurkitzea erraztuko duten objektuak.

30. Haur Hezkuntzako lehen zikloan literaturara hurbiltzeari dagokionez, baieztapen hauetako bat ez da egia:

- a) Ahozkotasunak zeregin nabarmena du etapa honetan, haurrei kultura literaria lehen aldiz hurbiltzeko aukera ematen dien bitarteko nagusia baita.
- b) Ikasgelan liburutegia kokatzeko gune bero eta abegitsua sortzeak literaturara modu naturalean hurbiltzea errazten du.
- c) Idatzizko kodea eskuratzea etapa honetan lortu beharreko helburu bat da, eta gelako eguneroko zereginean haurrentzat naturalak eta adierazgarriak diren egoeretan kokatu behar da.



31. Teresa Colomerren arabera, “irakurleak ez direnentsako liburu-mota” ezberdinei dagokionez, zein da baieztapen zuzena?

- a) Irudi-liburuetan, irudiak kolore argikoak izan ohi dira, atzealde ilunen gainean ebakiak, eta erabiltzeko erakargarritasun eta balio praktiko handia ematen dieten euskarrietan erreproduzitzen dira.
- b) Liburu interaktiboak, liburu mugikorak edo trokelatuak dira mugimendua emateko irakurlearen manipulazioa behar dutenak.
- c) Informazio-liburuaren barruan bi kategoria daude, ikaskuntza-funtzioaren arabera: kontzeptu-liburuak eta liburu mutuak.

32. Hizkuntzaren garapenari dagokionez, zein da erantzun okerra?

- a) Lehenengo substantiboak eta interjekzioak agertzen dira. Urtebetetik aurrera, aditzak, aditzondoak eta juntagailuak, eta 2 urte inguruan, izenordainak eta adjektiboak.
- b) Holofraseak bi hitzen etaparen ondoren datoz, eta 24 eta 30 hilabete bitartean ematen dira.
- c) Eboluzioaren garapenean agertzen den lehen komunikazio-funtzioa komunikazio-jokabide protoinperatiboa da.

33. Hizkuntza eskuratzea interakzio sozialaren esparruan garatzen da. Zein autorek defendatzen zuen teoria hori?

- a) Jean Piagetek.
- b) Lev Vygotskyk.
- c) Jerome Brunerrek.

34. Atxikimenduaren garapenari dagokionez, 8 eta 12 hilabete bitartean, gutxi gorabehera, haurrak ezaugarri hauek dituen fasean daude:

- a) Familia-figurekiko interakzio pribilegiatua, arrotzak baztertu gabe.
- b) Pertsonenganako orientazioa, zaintzen dituzten figurak aintzat hartu gabe.
- c) Lotura eta arrotzekiko beldurra.

35. Noiz ikusten da haurrak bere buruaren kontzientzia finkatzen duela?

- a) 12 eta 18 hilabete bitartean, oso ohikoa da haurrek “bi urte latzak” izeneko fasea igarotzea. Fase oldarkor horretan, haurrak Nia konkistatzen du eta aldi berean Niari aurre egiten dio.
- b) 18 eta 24 hilabete bitartean, hizkuntzako aurrerapenak eta izenordain pertsonalak agertzen dira. Izenordain horien bidez, haurra bere buruaz ari da –adibidez, “ni”, “umea” edo “neska” erabilia–, baita besteez ere –adibidez, “zu”, “ama” edo “aita” erabilia–.
- c) 24 eta 36 hilabete bitartean, jokabide-adierazpenak agertzen dira. Horietako batzuk gai edo ez gai izatearen sentimenduak dakartzate, eta beste batzuk arauak betetzearen edo urratzearen kontzientzia dakarte.

36. Bigarren mailako erreakzio zirkularrak:

- a) Horrela deitzen dira haurrak bere gorputza hartzen duelako esploraziorako objektu gisa, eta erreplikakorrak direlako.
- b) Kanpoko munduko objektuekin lotutako jokabideak kontserbatzeari buruzkoak dira, eta erreplikakorrak dira.
- c) Fase preoperazionalako egitura kognitiboak dira.



37. Piagetentzat, zenbakiaren kontzeptua eskuratzeari dagokionez, zein da erantzun zuzena?

- a) Haurrak zenbakiaren kontzeptua bereganatzen du zenbakien izenak ordenan ikasiz.
- b) Zenbakiaren nozioak lotura estua du sailkapenaren eta seriazioaren jardura logikoekin.
- c) Zenbakiaren kontzeptua zenbakien izenak eta objektuen kantitateak lotuz ikasten da.

38. Andre Lapierren Psikomotrizitate Erlazionalean:

- a) Helduaren papera behatzaile izatea da eta ez du inolaz ere haurren jolasetan esku hartzen.
- b) Helduak rol aktiboa du, eta beste objektu bat bihurtzen da; haurrek eskura dute eta harekin erlazioa daitezke.
- c) Helduaren zeregina haurrek objektuekin eta haien artean duten harremana sustatzea da.

39. Lateralitatearen kontzeptuari dagokionez, zein baieztapen da zuzena?

- a) Eskuaren nagusitasunari soilik erreparatu behar zaio.
- b) Begien nagusitasuna eskuarenaren aurretik dago.
- c) Eskuaren, begiaren eta oinaren nagusitasuna bat ez datozenean gertatzen da lateralitate gurutzatua.

40. Beatriz Trueba Marcanok haur-eskola baten ingurumen-antolamenduko hezkuntza-printzipioei buruz egindako proposamenean, zein izanen litzateke erreferentziazko hezkuntza-printzipioa?

- a) Bizigarritasuna, estetika eta edertasuna.
- b) Adierazgarritasuna eta entzutea.
- c) Konplexutasuna eta sormena.

41. Material hauetatik, zein izanen litzateke egokia 9 eta 14/18 hilabete bitarteko haurren jardura autonomoa/mugimendu librea bultzatzeko?

- a) Apar-eskailera.
- b) 40 x 40 cm-ko plataforma, 5 cm-ko altuera duena.
- c) Taka-taka.

42. Zirriborratzeari dagokionez, zein da erantzun okerra?

- a) Zirriborratzea mugimendu-ariketa hutsa da beti.
- b) Dallarik zirriborroan nahitako errepresentazio-prozesu bat ikusten du, eta prozesu horren alde egiteak kontzientzia sortzailea eta autodeterminazio askea garatzen lagunduko dio haurrari.
- c) Haurren marrazketan formak semantizatzea haurrek partekatzen dituzten formak eta esanahiak eraikitze eta identifikatzeko prozesuarekin bat datorrenean soilik da positiboa eta esanguratsua.

43. Reggiar ikuspegitik, zein da erantzun okerra?

- a) Giza espezieak hainbat hizkuntzatan adierazteko pribilegioa duela eta hizkuntza bakoitzak hierarkiarik gabe guztiz gauzatzeko eskubidea duela onartzeko sortu zen lantegia.
- b) Hitzak "esanahiak galtzen ditu haurrak askotariko esperientziak egiteko aukera duenean, hitzaren hizkuntza hitzik gabeko hizkuntzatik ere badatorrela jakitun izanik".
- c) Haurrak (eta baita helduak ere) ekintzarako, egiteko, eraikitze, ikasteko esperientzia zehatzetan aritzeko duen eskubidea aitortzeko sortzen da lantegia.



44. Carl Rogersen ikuspegitik, familiekiko “laguntza-harremanaren” ezaugarriak hauek izanen lirатеke (adierazi erantzun okerra):

- a) Seme-alaben beharrak errespetatzen ez dituzten jokabideak epaitzea.
- b) Familiaren alderdi guztiak onartzeko eta den bezala hartzeko gai izatea.
- c) Familiarekiko jarrera positiboak izaten jakitea.

45. Familiek hezkuntza-erakundean duten parte hartzeak hainbat funtzio, eduki eta erantzukizun izan ditzake, kontuan hartutako inplikazio-mailaren arabera (Flamey eta beste batzuk, 1999). Zeintzuk dira parte-hartze maila posibleak?

- a) Informatzekoa eta lankidetzakoa.
- b) Aholku-emailea, erabakiak hartzekoa eta eraginkortasuna kontrolatzekoa.
- c) Informatzekoa, lankidetzakoa, aholku-emailea, erabakiak hartzekoa eta eraginkortasuna kontrolatzekoa.

46. Familiaren balorazioari buruzko jardunbide egokiei dagokienez, zein da okerra?

- a) Norberaren aurreiritzien eta familiari buruzko kontzepzio inplizituen interferentzia posibleaz jabetzea.
- b) Familiaren funtzionamenduari modu konplexu eta adostasunezkoan begiratzea, betiere benetako familia-bizipenarekiko hurbilketa izango dela jakinda.
- c) Bizi-gertakari negatiboak, kronikotasuna edo familia-krisi larriak kontuan ez hartzea.

47. Zer ahalbidetzen digu isiltasunak harrera-aldian?

- a) Lehen aldiz eskolara iristen diren familien beharretarako emozionalki prest egotea.
- b) Giro segurua eta lasaia sortzea, gure lana hobeto egin ahal izateko.
- c) Hurrei arreta eta intentsitate handiagoz begiratzea, haiei protagonismo handiagoa eman eta hurrekin lotura esanguratsua hasteko aukerak irekiz eta konektatuz.

48. Harrera-aldian:

- a) Ikasgelatik irtetea ezinbestekoa da familiek agur esatea.
- b) Hezitzaileak negarra despistatzen saiatu behar du haurra kontsolatzeko edo lehenbailehen negar egiteari utz diezaion.
- c) Garrantzitsua da hurrek trantsizio-objektua ez dela beti eskuragarri egon jakitea.

49. Zein da erantzun okerra? Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa aldatzen duen abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoaren (LOMLOE) arabera:

- a) Hezkuntza inklusiboaren helburua da ikasle guztien era guztietako beharrei erantzutea.
- b) Hezkuntza inklusiboak gizarte-, hezkuntza- eta kultura-egoera ahulean dauden sarbidea, presentzia, parte-hartzea edo ikaskuntza mugatzen duten oztopoak ezabatzea proposatzen du.
- c) Hezkuntza inklusiboa hezkuntzarako sarbideari dagokio soilik.



50. Zein da erantzun okerra? Behin eta berriz gertatzen badira, honako hauek tratatu txar psikologiko edo emozionaltzat jotzen dira:

- a) Mespretxatzea, gutxiestea eta etsaitasunezkoak edo arbuiatzaileak diren beste tratamendu ez-fisiko batzuk.
- b) Gehiegizko babesa: haurrari bere adinerako egokiak diren autonomia eta parte-hartze sozialeko mailak lortzea eragozte.
- c) Haurrak telebista ikus dezan eragozte.

51. Inklusioak hau esan nahi du:

- a) Desgaitasunak dituzten haurrak ingurune normalizatu batean integratzea.
- b) Gure gizartean dauden neska-mutilen aniztasunak lekua duen leku gisa ulertzea eskola.
- c) Diskriminazio positiboa saihestea, horrek haur batzuei abantaila emanen liekeelako.

52. Bigarren hizkuntza eskuratzeari dagokionez, norena da ideia hau?: “Gramatika unibertsal bat existitzen da, hizkuntza guztiei aplikatzen ahal zaiena; gizaki bakoitzak sortzetikoa du gramatika hori”.

- a) Lev Vygostskykena.
- b) Noam Chomskyrena.
- c) Stephen Krashenena.

53. Egile hauetako zeini lotzen zaio “monitore-ereduaren teoria”?

- a) Stephen Krasheni.
- b) Noam Chomskyri.
- c) Joseph Greenbergi.

54. Garrantzitsua da elikagai pikortsu edo erdi solidoen sarrera ez atzeratzea:

- a) 9 hilabete baino beranduago arte.
- b) Urtebete baino beranduago arte.
- c) 18 hilabete baino beranduago arte.

55. Baieztapen hauetatik, zein dator bat Iruñeko Udaleko Haur Eskolen ildo pedagogikoarekin?

- a) Eskolek sukalde propioa dute, bai eta bertan jakiak prestatzen jarduten duten kanpoko langileak ere.
- b) Hezitzaileen eta langile laguntzaileen arteko eguneroko harremanak ez du uzten proiektua bera aberasten.
- c) Bertako jakiez prestatutako menu osasungarriak egitea etengabeko erronka da, eta balio hezigarri iraunkor gisara baloratzen da.

56. Ane makarroiak jaten ari da eta ez tul bizian hasten da kontrako eztarritik joan zaiolako. Zein da erantzun zuzena?

- a) Berehala eginen diogu HEIMLICH maniobra.
- b) Bizkarrean indarrez joko diogu ez tul egiten laguntzeko.
- c) Hitzez eta beldurtu gabe ez tul egiten jarraitzeko esanen diogu.



57. Mikel ez dago ondo eta 37,6 graduko tenperatura du (besapeko tenperatura). Zein da erantzun zuzena?

- a) Apiretal (paracetamol) dosi egokia emanen diogu eta familiari deituko diogu.
- b) Familiari deituko diogu lehenbailehen jaso dezaten.
- c) Familiari deituko diogu nola jokatu esan diezaguten, sukarra ez baita gaixotasun bat.

58. Ondorengo esku-hartzeetatik, zein da egokia erredura baten aurrean?

- a) Izotza erabiltzea erredura hozteko.
- b) Erredura ur freskoz freskatzea 10-20 minutuz.
- c) Azalari itsatsita dagoen arropa kentzea.

59. Haurraren adierazpen musikaren garapenari dagokionez, baieztapen hauetatik, zein da zuzena?

- a) 4 eta 8 hilabete bitartean, helduak haurrari abesteko edo musika jartzeko ohitura duen kasuetan, nolabaiteko zezelkatze musikala gertatzen da (*musical babbling*).
- b) 8 eta 12 hilabete bitartean, bere mugimenduak musikara egokitzeko eta berezko kantu silabikorako gaitasun handiagoa erakusten hasten da, tonu- eta erritmo-antolaketarik gabea, non geldialdiek arnasketa-beharrei erantzuten baitiete.
- c) 2 eta 3 urte bitartean, hitzaren aukera erritmikoak eta musikalak ezagutzen ditu, errazagoa baitzaio erritmoa hizketaren laguntzaz eramatea.

60. Haur-hezkuntzako musika-hezkuntzarako metodo aktiboei dagokienez:

- a) Dalcroze metodoak gorputza interpretazio erritmiko, mental eta emozionalerako instrumentu bihurtzea proposatzen du.
- b) Kodaly metodoan, gorputza bera ez ezik, haurrendako berariaz sortutako instrumentuak ere erabiltzen dira.
- c) Orff metodoaren ezaugarri nagusia da abesti herrikoia eta folklorea hezkuntza-material gisa deskubritzea.



ERRESERBAKO GALDERAK

1. 1978ko Espainiako Konstituzioaren 27. artikuluan ezarritakoarekin bat, ikastetxeak honako hauek sor ditzakete:

- a) Administrazio zentralaz gain, horretarako eskumena duten Administrazio Autonomikoek sortzen ahal dituzte ikastetxeak.
- b) Pertsona fisikoek ezin dute, inola ere, ikastetxerik sortu.
- c) Pertsona fisiko eta juridikoek ere egin dezakete, konstituzio-printzipioei dagokien begirunearen barruan.

2. Iruñeko Udaleko Haur Eskoletako lehendakariaren zereginak dira:

- a) Gobernu Batzarretarako deia egitea, horien buru izatea eta horiek bertan behera uztea.
- b) Ikasleak onartzeko irizpideak zehaztea.
- c) Aurrekontuetako kreditu-transferentziak onestea.

3. Piagetek garapen kognitiboari buruz duen teoriaren arabera, baieztapen hauetatik, zein litzateke zuzena?

- a) Intentzionalitatea lortzeko haurtxoak bi eskema desberdin koordinatzen ditu, eta horietako bat bestearen mende geratzen da, jokabidearen helburua edo jomuga osatzen duen eskemaren mende, hain zuzen ere.
- b) Bigarren mailako erreakzio zirkularra ustekabeko ekintzak behin eta berriz eta bere gorputza ardatz hartuta egitean datza.
- c) Intentzionalitatea 1. eta 4. hilabeteen artean agertzen da (2. azpiestadioa).

4. Objektu hauetatik, zeinek laguntzen die goi-mailako funtzio kognitiboari, kausa eta efektu egoerak egiaztatuz?

- a) Barnean haziak dituen plastikozko botila gardenak.
- b) Ur-hotsa egiten duen egurrezko makilak.
- c) Sehaskako mugikariak.

5. Nork zehazten ditu familiek parte hartzeko bideak?

- a) Ikastetxeak.
- b) Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuak (IHP).
- c) Nafarroako Gobernuak.